



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO OTSAILAREN 1EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- OLGA MANZANO MIRANDARI BISTA ALAI ETXEA (TXIKIERDI 18)
HANDITZEKO ETA BIRGAITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.**

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2015-0350

OLGA MANZANO MIRANDA andereak, Bista alai etxea (Txikierdi 18) haunditzeko eta birgaitzeko udal baimena eskatu du.

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, ondoko txostena eman du:

UA2016_04_02

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

**BISTA ALAI ETXEA HANDITZEKO ETA BIRGAITZEKO EXEKUZIO
PROIEKTUARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Txikierdi 18, Usurbil.
ESKAERA DATA: 2015eko abuztuaren 15
ESKATZAILEA: Olga Mazano Miranda
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.0
OINARRIZKO PROIEKTUARI TGB-K BAIMENA: EZ
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 27.709,77euro

AURREKARIAK

- 2015eko abuztuaren 15ean Olga Manzano andereak Txikierdi 18an dagoen Bista Alai etxea partzialki birgaitzeko obra baimena eskatu du.

Erlazionatuak: HZ.06/2008-0108



Usurbilgo Udala



- cod. 2.3.5. sig: 2-16./1952: Ascensio Arruti, etxe berria eraiki, Kalezar Esperantza baserriaren lurretan. Bista Alai.
- ZBK. 32.10/ 1994: Ascensio Arruti Santamaria, Bista Alai etxean birmoldaketa obrak, eraiki.

TXOSTENA

Olga Manzano andereak Txikierdi 18an dagoen Bista Alai etxea partzialgi birgaitzeko obra baimena eskatu du, Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batean. Aurkeztu dokumentazioa da, eskaera orriarekin batera; Exekuzio Proiektua aparejadoreak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe. Exekuzio Proiektuak barneratzen ditu; Memoria, EKT-ren justifikazioa, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Segurtasun eta Osasunerako Oinarrizko Azterlana, Planuak eta Aurrekontua.

Aurkeztu den Proiektuaren arabera, obren helburua da:

“Se precederá a restaurar las fachadas de todo el edificio para mejorar térmicamente sus características y evitar la problemática con las humedades de condensación. Para ello se instalará un sistema SATE en toda la envolvente del edificio. Así mismo se aprovechará para cambiar todas las ventanas del edificio y mejorar por completo la envolvente de las fachadas.

*Se eliminará la escalera existente en el exterior del edificio y se instalará una nueva escalera metálica y de madera en el interior del edificio para que ambas plantas queden comunicadas. Se demolerá la escalera existente por completo para dejar la fachada limpia para colocar el sistema SATE. En el interior del edificio se abrirá un hueco en la esquina sur para **colocar la nueva escalera**. En principio se descarta el refuerzo de la estructura del forjado de la planta primera debido a la posición de los solivos quedarán paralelos a la escalera y ninguno quedará cortado o en vuelo. La viga longitudinal y los muros de carga delimitarán el hueco de la escalera.*

Se abrirá un nuevo hueco en el forjado de la zona este del edificio para pasar la nueva escalera que subirá a la planta bajo cubierta, quedando clausurada la escalera telescópica existente. Así mismo se abrirá la losa de hormigón para bajar una escalera al sótano. Se reforzarán perimetralmente los huecos en caso de ser necesario.

La terraza de la planta primera con orientación suroeste-noroeste se cerrará para dar más metros útiles habitables a la planta primera. Se prolongará la cubierta con una nueva subestructura que irá anclada a la cubierta y al forjado inferior existentes, esta se realizará en madera y anclajes metálicos y se recubrirá con material aislante y tejas cerámicas para mantener la homogeneidad estética de la cubierta. La nueva fachada que se instale será de las mismas características que la del resto del edificio e irá recubierta de SATE para mantener la homogeneidad. Este nuevo espacio dispondrá de ventanas para ventilación e iluminación.”

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- i. OBRA HANDIA, TEKNIKARI ESKUDUNAK IZENPETUTAKO PROIEKTUA, ELKARGOAK IKUS-ONETSIA: Aurkeztu proiektuaren memorian deskribatzen dira egikaritu nahi diren obrak eta bertan dioenez,



Usurbilgo Udala



altxaeran SATE sistema ezartzearekin batera: eskailera berriak exekutatu dira, teilatuaren zati berri bat egin, egungo forjatuetan eskuhartuko da eta eraikinaren handitzea egingo da. Guzti hauek obra haundiak dira eta ondorioz, **orain interesatuak eskatzen duen Obra Haundietarako udal baimena da. Obra haundiak arkitektoak izenpetutako Proiektu batek barneratu beharko lituzke, hari dagokion Elkargo Ofizialak ikusonetsi eta haren Obra Zuzendaritapena egikaritu. Ondorioz, aurkeztu den Exekuzio Proiektua aparejadoreak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikusonetsi gabe egonagatik ez da onargarria.**

- ii. LURZORU EZ-URBANIZAGARRIAN EGOITZAZKO ETXEBIZITZEN HANDITZEA: Indarrean diren AASSen Testu Bateginaren arabera (GAO 2013-09-10) lurzoru ez urbanizagarrian dauden etxebizita eraikinen handitzearen inguruan, *baserrien zabalkuntza, horien ustiakuntzari lotutako erabileretarako* erregulatzen du eta **ez du baserriak ez diren egoitzazko eraikuntzen egoitzazko erabileretarako handitzea baimentzen.** Gainera, 2/2006 Legeak ezarritako 28. artikulura bideratzen du lurzoru ez-urbanizagarrian egikaritu ahalko diren eraikinetarako (non lurzoru ez-urbanizagarrian nekazal ustiapenari loturik ez dauden etxebizitza eraikinen egikaritzea galarazten den).

Horrekin batera, 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 9. artikuluan honela definitzen du baserria:

“1- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 29.1. eta 30. artikuluetan lurzoru ez-urbanizagarriaren erregimenari dagokionez xedatutakoaren ondorioetarako, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten eraikinak hartuko dira baserritzat:

- a) *Eraikin bakanak izatea, eta erabilera nagusia etxebizitza-erabilera izatea.*
- b) *Gutxienez etxebizitza bat izatea, Jabetza Erregistroan xedaturikoaren arabera.*
- c) *Lehen Okupaziozko lizentzia, edo eraikinak 1950eko urtarrilaren 1aren aurretik bizitegi-okupazioa izan duela erasinesgarrian jasoko duen dokumentu bat izatea.*
- d) *Udalak bere hirigintza-plangintzan edo dagokion udal-ordenantzna ezartzen dituen ezaugarri gehigarriak izatea.”*

Espediente erlazionatuetan ikus ahal izan denaren arabera, Usurbilgo Udalak 1952. azaroaren 11ean eman zion Ascensio Arruti jaunari Bista Alai etxea eraikitzeko obra baimena eta ondorioz, aipatu **105/2008 Dekretuaren 9. artikuluren c) baldintza betetzen ez denez, ezin da Bista Alai etxea baserritzat hartu.**

Honengatik guztiagatik, **Bista Alai etxearen handitzea ez da baimengarria.**



Usurbilgo Udala



- iii. BAIMENIK GABE EGIKARITUTAKO OBRAK: Orain aurkeztu den dokumentazioak egungo egoeraren planuak barneratzen ditu. Horietan ikusi ahal izan denaren arabera, Udalak orainartean baimendu gabeko obrak egin izana aitortzen da (sotoa, estalki behearen altuera, garaje gainean bigarren forjatua, ...). Orohar, **baimenik gabe egikaritutako obrak legeztatu egin beharko dira eta legeztagarriak ez direnak leheneratu, Udalak ezar ditzakeen isunen eta har daitezkeen neurrien kalterik gabe.**

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, Bista Alai etxearen erreforma partzialaren Exekuzio proiektuari KONTRAKO baimena idazten zaio, baimena UKATUZ.

Ukatzea honako arrazoietan oinarritzen da:

- **Egikaritu nahi diren obrak Obra Haundiak dira eta hauek arkitektoak izenpetutako Proiektu batean jaso beharko lirateke, dagokion Elkargo Ofizialak ikus- onetsita.**
- **Egikaritu nahi diren obrak lurzoru ez-urbanizagarrian etxebizitza eraikin baten handitzea barneratzen dute eta indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera hau ez da onargarria; egoitzazko eraikina baserria ez delako eta handitzea ez delako nekazal ustiapenari lotutako erabilerarako.**

Honekin batera, HIRU HILABETEKO epea ematen da baimenik gabeko obren legeztatze proiektua aurkezteko, legeztatu ezin diren obrak leheneratu egin beharko direlarik. Udalak arau-hausteagatik har ditzakeen neurrien eta ezar ditzakeen isunen kalterik gabe.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2016ko urtarrilaren 26an
UDAL ARKITEKTOA/ HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA
SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENDABIZI: OLGA MANZANO MIRANDA andereari Bista alai etxea (Txikierdi 18) haunditzeko eta birgaitzeko udal baimena **UKATZEA** ondoko arrazoiengatik:

- Egikaritu nahi diren obrak Obra Haundiak dira eta hauek arkitektoak izenpetutako Proiektu batean jaso beharko lirateke, dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsita.
- Egikaritu nahi diren obrak lurzoru ez-urbanizagarrian etxebizitza eraikin baten handitzea barneratzen dute eta indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera hau ez da onargarria; egoitzazko eraikina baserria ez delako eta handitzea ez delako nekazal ustiapenari lotutako erabilerarako.

BIGARRENA: OLGA MANZANO MIRANDA andereari, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duen biharamunetik kontatzen hasita, **HIRU HILABETEKO** epea ematea baimenik gabe egindako obren Legeztatze Proiektua aurkezteko.

Udalak arau-hausteagatik har ditzakeen neurrien eta ezar ditzakeen isunen kalterik gabe, legeztatu ezin diren obrak leheneratu egin beharko direla gogoraraztea Interesatuari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

2.- 2015EKO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINITZEA.

Espedienteak: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (KE.01/2016-0056)
Nafartarrak (KE.01/2016-0066)
Einean Guraso Elkarte (KE.01/2015-0049)
Antxomolantxa (KE. 01/2015-0044)
San Praixku Guraso Elkarte (KE. 01/2015-0043)
Etumeta Aek Euskalteria (KE. 01/2015-0054)
Ziortza Gazte Elkarte (KE.01/2015-0055)
Gipuzkoako Bertsozale Elkarte (KE.01/2015-0048)
Zorione Mendez (KE. 01/2015-0064)

Ikusirik

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, 2015eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, diru-laguntza horiek modu honetara justifikatu dira:

Usurbilgo Euskal Kantu Taldea



Usurbilgo Udala



Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
34. Euskal Kantu entsegua	784,00	588,00	Gastua: 1.200,00 Soberakina: 416,00	196,00
35. Kantu jira	1.594,00	1.195,50	Gatua: 1.000,00 34. ekintzako soberakina 416,00 Guztira gastua: 1.416,00 2. zatia 1.416,00-1.195,50	220,50
37. Bertso, kantu, afaria, kantaldia	622,00	466,50	Gastua: 603,25 2. zatia 603,25-466,50	136,75
Guztira				553,25 €

Nafartarrak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
62. Hitzaldi-Mahai ingurua: Genozidioa Euskal Herrian	765,00	573,75	Guztira: 275,00 64. soberakina: 55 Guztira gastua: 330 2. zatia 330-573,75	-243,75
63. Irteera gidatua: Iruña Veleia	225,00	168,75	Gastua: 193,60 2.zatia 193,60-168,75	24,85
64. Irteera gidatua: Orreaga	225,00	168,75	Gastua: 580,00 Sarrerak: 300,00 Guztira gastua: 280,00 Soberakina: 55,00	56,25
65. Hitzaldi mahai ingurua:	765,00	573,75	EZ DA EGIN	-573,75
66. Liburuaren aurkezpena	270,00	202,50	Gastua: 250,00 2. zatia 250,00-202,50	47,50
67. Xiberoako ikastolen elkartasun ekimena	585,00	438,75	EZ DA EGIN	-438,75
Udalari itzuli beharrekoa				-1.127,65 €

Einean Guraso Elkartea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
16. Laboreak	72,00	54,00	Guztira: 54,56 18. soberakina: 17,44 Guztira gastua: 72	18,00
17. Yoga	72,00	54,00	Guztira: 54,56 18. soberakina: 17,44	18,00



Usurbilgo Udala



			Guztira gastua: 72	
18. Pintura	720,00	540,00	Gastua: 1.024,67 Soberakina: 304,67	180,00
19. Eskulanak	720,00	540,00	Gastua: 1.024,67 Soberakina: 304,67	180,00
20. Idazketa kreatiboa	72,00	54,00	EZ DA EGIN	-54,00
21. Sabel dantza et Hip Hop	72,00	54,00	Guztira: 54,56 18. soberakina: 17,44 Guztira gastua: 72	18,00
Guztira				360,00 €

Antxomolantxa

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
11. Kultur Ekintzak	2.385,00	1.788,75	Gastua: 2.496,00	596,25
12. Ludoteka	378,00	283,50	Gatua: 389,93	94,50
Guztira				690,75 €

San Praixku Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
1. Txokoak	1.860,00	1.395,00	Gastua: 2.316,55 Sarrera: 476,00 Guztira gastua: 1.840,55 2. ekintzako soberakina 19,45	465,00
2. Euskararen Eguna	1.080,00	810,00	Gatua: 1.614,00 Sarrera: 480,00 Guztira gastua: 1.134,00 Soberakina: 54,00	270,00
3. Santo Tomas Eguna	270,00	202,50	Gastua: 263,60 2. ekintzako soberakina: 6,40	67,50
4. Aginagako Eskola txiki Eguna	2.970,00	2.227,50	Gastua: 3.149,36	742,50
6. Yoga ikastaroa	180,00	135,00	Gastua: 430,00 Sarrera: 250,00 Guztira gastua: 180,00	45,00
7. Patin ikastaroa	60,00	45,00	Gastua: 240,00 Sarrera: 180,00 Guztira gastua: 60,00	15,00
8. Ipuin kontalaria	270,00	202,50	Gastua: 270,00	67,50
9. Pintura eta eskulan ikastaroa	330,00	247,50	Gastua: 1.336,40 Sarrera: 996,00 Guztira gastua: 340,40	82,50



Usurbilgo Udala



			Soberakina: 10,40	
10. Euskal Dantza	180,00	135,00	Gastua: 720,00 Sarrera: 540,00 Guztira gastua: 180,00	45,00
Guztira				1.800,00 €

Etumeta Aek Euskaltegia

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Itzuli beharrekoa
27. Barreterapia	93,00	69,75	EZ DA EGIN	69,75
Udalari itzuli beharrekoa				69,75

Ziortza Gazte Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
28. Urteko saioak	1.332,90	999,68	Gastua: 1.251,66 29.ekintzako soberakina 81,24	333,22
29. Urteko saioetako irteerak	50,00	37,50	Gatua: 240,00 Soberakina: 190,00	12,50
30. Elkarbizitza irteerak	200,00	150,00	Gastua: 427,83 Sarrera: 400,00 Guztira gastua: 27,83 29.32 ekintzetako soberakina: 172,17	50,00
31. 30. Urteurrena ospakizunak	1.440,00	1.080,00	Gastua: 746,91 32. Ekintzako soberakina: 693,09	360,00
32. Kanpaldia 2015	5.418,00	4.063,50	Gastua: 15.243,77 Sarrera: 6.750,00 Guztira gastua: 8.493,77 Soberakina: 3.075,77	1.354,50
33. Kabalgata 2016	1.665,00	1.248,75	Gastua: 1.475,23 32. ekintzako soberakina: 189,77	416,25
Guztira				2.526,47 €

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
15. Usurbilgo Bertso Eskola	1.161,22	870,91	Gastua: 1.771,07 Sarrera: 550,00 Guztira gastua: 1.221,07	290,31
Guztira				290,31 €

Zorione Mendez

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
----------	-----------	--------------	------------------	---------------------



Usurbilgo Udala



57. Erakusketa erropen bizitzaren alde	225,00	168,75	Gastua: 252 Soberakina: 27,00	56,25
58. Erakusketa: Arte lan	225,00	168,75	Gastua: 125,10 57. ekintzako soberakina 27,00 Guztira gastua 125,10+27=152,10 2. zatia 152,10-168,75	-16,65
Guztira				39,60 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2015n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Euskal Kantu Taldea	34,35,36	553,25
Einean guraso elkarte	16,17,18,19,20,21	360,00
Antxomolantxa	11,12	690,75
San Praixku guraso elkarte	1,2,3,4,6,7,8,9,10	1.800,00
Ziortza gazte elkarte	28,29,30,31,32,33	2.526,47
Gipuzkoako Bertsozale elkarte	15	290,31
Zorione Mendez	57,58	39,60

Eskatzaile honek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Ekintzak	Udalari itzuli beharrekoa
Nafartarrak	62,63,64,65,66,67	1.127,65
Etumeta Aek Euskaltegia	27	69,75

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 2015 (A 3/2015)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.



Usurbilgo Udala



Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Idazkariak adierazi du datorren astean gainontzeko arloetako 2. zatiak ordaintzeko erabakiak hartu beharko direla.

3.- 2016AN KULTUR ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2016-0024

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2016. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2016. urtean kultur egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2016ko urtarrilaren 18ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean 2016ko kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2016an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.4000.481.334.00.03

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.



Usurbilgo Udala



Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

4.- 2016AN KIROL ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2016 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2016 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2015eko azaroaren 30ko Kirol Batzorde Informatzailean 2016ko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2016an Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen diren diru izendapenak:

1	43	00	481	341	00	01	Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak
1	43	00	481	341	00	02	Emakumezkoen berdintasun plana
1	43	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak
1	43	00	481	341	00	04	Kirol-teknikoen prestakuntza
1	43	00	481	341	00	05	Egitura sendotzeko laguntza
1	43	00	481	341	00	06	Gazteen arteko sustapena
1	43	00	481	341	00	07	Kirol egokitua
1	43	00	481	341	00	08	Kirol elkarteak ez direnean

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Usurbilgo Udala



Laugarrena: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

5.- 2016AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: GZ.42/2016-0003

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, elkarteek, bestelako erakundeek eta norbanakoek gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2016. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2016. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapitulua I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2016ko urtarrilaren 21ean egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean 2016. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2016. urtean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1.8000.481.231.03.02.2016 Diru-laguntza irekiak: elkarteak asmoak.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei lan eguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.



Usurbilgo Udala



Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

6.- 2016AN NEKAZARITZA-ABELTZAINZA ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2016-0029

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten nekazaritza-abeltzaintza arloko ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, 2016. urteko diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu.

Oinarri hauen helburua nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Proposamen honi erantsirik doazen nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak laguntzeko 2016ko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1-6200-481-412-00-03-2016 (A 7/2016).

HIRUGARRENA: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

LAUGARRENA: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

BOSTGARRENA: Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

7.- 2016AN INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2016-0030

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten ingurumen arloko egitasmoak bultzatu eta sustatzeko asmoz, 2016. urteko diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu.



Usurbilgo Udala



Oinarri hauen helburua ingurumen arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Proposamen honi erantsirik doazen ingurumen arloko egitasmoak laguntzeko 2016ko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi erasten zaizkiolarik.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1-6100-480-172-00-01-2016 (A 6/2016).

HIRUGARRENA: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

LAUGARRENA: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

BOSTGARRENA: Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

Idazkariak adierazi du datorren urteko diru-laguntzen deialdian arlo guztietan amankomuna den zatia bateratu egin beharko dela eta oinarri bakar batean jaso, eta oinarri horien barnean arlo bakoitzari dagozkion zehaztapenak eranskin moduan erantsi.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.